



**Esp. kodea:** 2012RBAR0014  
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA

**Gaia:** 2012 urteko dirulaguntza deialdia  
**Hasiera data:** 2012/03/27

## 9.2. ARRASATEKO KIROL TALDEEK ETA ENTITATEEK ANTOLATUTAKO JARDUERA BEREZIETARAKO ETA/EDO NOIZEAN BEHINGO JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUTEN OINARRI-ARAUAK

## 9.2. BASES REGULADORAS DE LA CONCESION DE SUBVENCIONES PARA ACTIVIDADES EXTRAORDINARIAS Y/O PUNTUALES ORGANIZADAS POR CLUBES Y ENTIDADES DEPORTIVAS DE ARRASATE

### 1. Xedea

Oinarri-arau hauen xedea da kirol taldeei eta entitateei, norgehiagoka erregimenean, dirulaguntzak ematea, herri osoarentzat diren jolas izaerako kirol jarduera bereziak eta/edo noizean behingo jarduerak antolatzeko, oinarri-arau hauetan zehaztutako aldian, betiere Arrasateko herrian egiten badira, edo Arrasateko kirolariek egiten badituzte, jarduera hori herritik kanpo eginez gero.

### 2. Onuradunak

Oinarri-arau espezifikoko hauek arautzen dituzten dirulaguntzak eskatu ahal izango dituzte, baldintza hauek betetzen dituzten kirol taldeek:

- a.- Eraturik egotea indarrean dagoen legeriaren arabera eta izena emanda Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarte eta Entitateen Erregistroan.
- b.- Izena emanda egotea AUKEA kirol erakunde autonomoaren kirol talde eta elkarten erregistroan.
- c.- Identifikazio Fiskaleko Kodea izatea eta egunean egotea zerga obligazioetan.
- d.- Helbide soziala Arrasaten edukitzea. Salbuespenez, nahiz eta ez izan egoitza Arrasaten, jardun eremua Arrasate izan eta AUKEAk interesgarritzat jotzen dituen ekintzak edo proiektuak garatzen duen kirol klubak ere onartuko dira.

### 1. Objeto

Es objeto de las presentes bases la concesión de ayudas económicas, en régimen de concurrencia competitiva, a clubes y entidades deportivas para la organización de actividades deportivas extraordinarias y/o puntuales de carácter recreativo dirigidas a toda la población, en el período especificado en estas bases, y que se realicen en el término municipal de Arrasate, o por deportistas de Arrasate en el caso de que se realice la actividad fuera del municipio.

### 2. Beneficiarios

Podrán solicitar las subvenciones que se regulan por las presentes Bases, los clubes deportivos que cumplan los siguientes requisitos:

- a.- Estar constituidos de acuerdo con la legislación vigente e inscritos en el Registro de Asociaciones y Entidades Deportivas del Gobierno Vasco.
- b.- Estar registrados en el registro de clubes y asociaciones deportivas del Organismo Autónomo de Deportes AUKEA.
- c.- Poseer Código de Identificación Fiscal y estar al día con las obligaciones fiscales.
- d.- Tener la sede social en Arrasate. También excepcionalmente, aquellos otros clubes que, aún no teniendo su sede en Arrasate, desarrolle actividades o proyectos en Arrasate y éstas sean considerados de interés por parte de AUKEA.



**Esp. kodea:** 2012RBAR0014  
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA

**Gaia:** 2012 urteko dirulaguntza deialdia  
**Hasiera data:** 2012/03/27

### 3. Onuradunen konpromisoak

a-Diruz lagundutako edozein jardueraren antolatzaileak idatziz, ahoz edo marrazki bidez eginiko iragarki guztietan AUKEaren laguntzaren berri eman beharko du haren logotipoa jarritz (adib: web orrian, pankartak...).

b-Jarduera aurkezteko prentsaurrekoa zein egunetan, zein ordutan eta zein lekutan izango den jakinarazi beharko du, eta prentsaurreko horretan parte hartzeko gonbita egin.

### 4. Aurkeztu beharreko agiriak

Deialdi honetako oinarri-arau orokorretako 7. artikuluan eskatzen diren agiriez gain, eskabideekin batera, agiri hauek aurkeztu behar ditu eskatzaileak:

4.1-Diru laguntzaren eskaera orria, eredu ofiziala, behar bezala beteta.

4.2- Eusko Jaurlaritzako Elkarte Erregistroan (2012. urtean) kluba izena emanda dagoela egiaztatu.

4.3- Kontu korrontearen titularitatea egiaztatu.

4.4- Memoria:

a- Inplikaturako pertsonen kirol probaren eta/edo kurrikulumaren historiala.

b- Txosten teknikoa, eta hor zehaztuko dira jardueraren antolaketaren xehetasunak: ekintzaren data eta non egingo den, jardueraren eremua, partehartzaileak (zehaztu kategoriak edo adinak), etab.

c- Jardueraren antolaketaren pertsona edo talde arduradunaren fitxa osoa.

### 3. Compromisos de los beneficiarios

a-El organizador de cualquier actividad a subvencionar deberá hacer constar en toda la publicidad escrita, verbal o gráfica, colaboración de AUKEA, insertando logotipo del mismo. (p.e: web, pancartas,...).

b-Deberá comunicar, el día, hora y lugar de celebración de la rueda de prensa de presentación del acto, realizando así mismo la invitación oportuna para participar en el mismo.

### 4. Documentacion a presentar

Además de la documentación exigida en el artículo 7 de las bases generales de la presente convocatoria, junto con las solicitudes el solicitante deberá presentar la siguiente documentación:

4.1-Instancia de solicitud de subvención debidamente cumplimentada de acuerdo con el modelo oficial.

4.2- Acreditar estar inscritos (2012) en el registro de clubes y Asociaciones y Entidades deportivas del Gobierno Vasco.

4.3- Certificado que acredite la titularidad de la cuenta corriente.

4.4- Memoria:

a-Historial de la prueba y/o curriculum deportivo de las personas implicadas.

b-Informe técnico, detallando los pormenores de la organización de la actividad:fechas y lugar de celebración, ámbito de la actividad, participantes en la misma (especificando categorías o edades), etc.

c-Ficha completa de la persona o equipo responsables de la organización de la actividad.



**Esp. kodea:** 2012RBAR0014  
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA

**Gaia:** 2012 urteko dirulaguntza deialdia  
**Hasiera data:** 2012/03/27

d- Txosten ekonomikoa, eta hor deskribatuko dira zehatz-mehatz jardueraren gastuak eta diru sarrerak.

d-Informe económico con descripción detallada de gastos e ingresos de la actividad.

### 5. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea

AUKEA erakunde autonomoak izapidetuko ditu eskabideak. Irizpide orokorra bezala, ekintzari dagokion gastu osoaren %30a lagunduko da. Salbuespen gisa, eta betiere AUKEAren irizpideen arabera, kasu berezietan portzentaje hau handitua edo gutxitua izan daiteke.

### 5. Unidad administrativa encargada de la tramitación

Las solicitudes serán tramitadas por el Organismo Autónomo AUKEA. Como criterio general, se subvencionará un 30% del gasto total del evento. No obstante, atendiendo a circunstancias especiales del acto, este porcentaje podrá ser aumentado o disminuido a criterio de AUKEA.

### 6. Eskabideak baloratzeko irizpideak

Oinarri-arau hauetan arautzen diren laguntzak kalkulatzeko, irizpide hauek aplikatuko dira.

1. Egin beharreko kirol jardueraren historiala eta oraingo garrantzi maila.
2. Herrian kirol jardueraren eragina eta aportazioa.
3. Aurkeztu den proiektuaren kalitate teknikoa (diseinua, metodologia, baliabideen antolaketa, izaera berritzailea eta abar) eta horren egokitasuna.
4. Elkarrekin egindako ahalegina, antolatzen nahiz diru kontuetan. Jardueraren aurrekontuaren eta eskatutako dirulaguntzaren arteko proportzionaltasuna.

Horietaz gain ezaugarri hauek hobetsi eta positiboki baloratuko dira:

- Beraien jarduerak burutzeko Udalaren ekarpenaz gain, beste finantziario bide batzuk bilatzeko ahaleginak egiten dituzten elkarrekin.

### 6. Criterios de valoración de las solicitudes

Para el cálculo de las ayudas reguladas en las presentes bases se aplicarán los siguientes criterios.

1. Historial y nivel de importancia actual de la actividad deportiva a realizar.
2. Incidencia y aportación de la actividad deportiva a nivel local.
3. Calidad técnica del proyecto presentado (diseño, metodología, organización de recursos, carácter innovador, etc.) y oportunidad del mismo.
4. Esfuerzo realizado por la asociación tanto a nivel de organización como a nivel económico. Proporcionalidad entre el presupuesto de la actividad y la subvención solicitada.

Además de estos, se dará preferencia y se valorarán positivamente las siguientes características:

- Además de la aportación del Ayuntamiento para la materialización de sus actividades, asociaciones que realizan esfuerzos para buscar otras vías de financiación.



**Esp. kodea:** 2012RBAR0014  
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA

**Gaia:** 2012 urteko dirulaguntza deialdia  
**Hasiera data:** 2012/03/27

- Hainbat jarduera, proiektu edo ekintza beste elkarte batzuekin elkarlanean burutzea eta herriari benetan ekarpen aberats eta anitza egiten diotenak.
- Berdintasun irizpidea kontutan hartzea, emakume eta gizonen berdintasunean eragin eta sustatuz, bereziki, emakumeen eskubideak bermatzen diren heinean.
- Belaunaldien arteko ibilbidea eta transmisioa bermatzen dutenak eta elkartearen bizi iraupena ziurtatzen saiatzen direnak, bereziki beraien lana herrian zabaltzen eta hedatzen dutenei (sozializazioa, jende berriaren inplikazioa,...)
- Ingurumen ikuspegia baloratuko da bereziki baliabide, bitarteko eta egitasmoetan berrerabilpena eta birziklatze irizpidea kontuan izaten dutenei (kartelak, ekintzak...).
- Realización de diversas actividades, proyectos o actos en colaboración con otras entidades o asociaciones, actividades que realizan una verdadera aportación enriquecedora y variada al municipio.
- Consideración del criterio de igualdad, impulsando y promoviendo la igualdad entre hombres y mujeres, especialmente, en la medida que se garantizan los derechos de las mujeres.
- Aquellas que garantizan la trayectoria y la transmisión entres las diferentes generaciones y aquellas que intentan asegurar la supervivencia de la asociación, especialmente a aquellas que difunden y propagan en el municipio su labor (la socialización, la implicación de nuevas generaciones, ...).
- Se valorará especialmente el punto de vista medioambiental a aquellas entidades que tengan presentes la reutilización y el criterio de reciclaje (carteles, actos,...) en los diferentes recursos, medios y proyectos.

## 7. Aurrekontua

Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 6.000,00 €koa da, eta finantzatuko da “1.1000.481.452.00.02.00 – kirol entitateen jarduerako dirulaguntzak” kontu sailaren kontura.

## 8. Frogatzeko epea eta erak

Deialdi honetako oinarri-arau orokorretako 23. artikuluan araututakoaz gain, 2013ko urtarrilaren 15a baino lehen memoria aurkeztu behar da:

## 7. Presupuesto

El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 6.000,00 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria “1.10.00.481.452.00.02.00 - Subvenciones Actividades de entidades deportivas”.

## 8. Plazo y formas de justificación

Además de lo regulado en el artículo 23 de las bases generales de la presente convocatoria, se deberá presentar memoria antes del 15 de enero de 2013:



**Esp. kodea:** 2012RBAR0014  
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA

**Gaia:** 2012 urteko dirulaguntza deialdia  
**Hasiera data:** 2012/03/27

8.1 - Dokumentazio grafikoa, argazkiak edo ikus-entzuzkoa, diruz lagundu den jarduera egin dela egiaztatzeko (liburuxkak, prentsa...).

8.1 - Documentación gráfica, fotográfica o audiovisual que sirva para acreditar la celebración de la actividad subvencionada (folletos, prensa...).

8.2 – Izandako gastu eta sarreraren balantze orokorra.

8.2 - Informe económico y justificantes.

a) Jarduerari buruzko gastuen jatorrizko fakturak. Datu hauek eduki behar dituzte fakturek:

a) Facturas originales de gastos relativos a la actividad. Las facturas deberán contener los siguientes datos:

- Talde, entitate, elkartearen izena argi eta garbi.
- Kontratastaren edo hornitzailearen izena.
- Fakturaren eguna.
- Hornidura/zerbitzua sortzen duen jarduera.
- Horniduraren edo zerbitzuaren deskribapena.

- Identificación clara del Club, Entidad, Asociación.
- Identificación de la empresa contratista o proveedor.
- Fecha de la factura.
- Actividad que origina el suministro/ servicio.
- Descripción suficiente del suministro o servicio.

Fakturekin batera horien zerrenda osoa aurkeztu behar da, eta zein gasturi dagokion adierazi.

Las facturas deberán ser acompañadas de una relación completa de las mismas, indicando el gasto al que corresponden.

b) Arbitrajeak epaileen gastuak, federazioko gastuak, eskudirutan emandako sariak, dieta edo partizipazio kuotengatik talde eta kirolari amateurri egindako ordainketak: horien guztien ordainagiriak, faktura sortzen ez dutenean.

b) Recibos de arbitrajes, gastos de jueces/as, gastos federativos, premios en metálico, pagos a equipos y deportistas aficionados en concepto de dietas o cuotas de participación, que no puedan generar factura.

Ordainagiri horiek hauek jaso behar dituzte:

Estos recibos deberán contener:

- Kirolarien izenak (izen-abizenak eta NA) edo taldearen izena.
- Gastuaren zenbatekoa
- Kontzeptuaren deskribapena.
- Ordainketa egiten duen entitatearen deskribapena (diru-laguntzaren onuraduna) eta noiz eman den.

- Identificación de deportistas (nombre y apellidos y DNI) o club.
- Importe del gasto
- Descripción del concepto.
- Descripción de la entidad que realiza el desembolso (beneficiario de la subvención) y fecha de expedición.

8.3 Entitateak denboraldian izan dituen laguntzak eta diru-laguntzak deklaratzeko.

8.3 Declaración de las ayudas y subvenciones con las que cuenta la entidad para la temporada.



**Esp. kodea:** 2012RBAR0014  
**Titularra:** OGASUN BATZORDEA

**Gaia:** 2012 urteko dirulaguntza deialdia  
**Hasiera data:** 2012/03/27

Memorian alegatutako datuak, behar den moduan egiaztatu barik, ez dira kontuan hartuko eskabidea baloratzean.

Halaber, dirua biltzeko diren dirulaguntzetan, ez da aurkeztu behar izango jatorrizko fakturarik edo dokumenturik, eta dokumentazio hori aurkeztu barik, dirulaguntzaren onuradunek bidali dezakete ekintza egitean sortu diren gastu eta diru sarreren balantzearen zenbaki laburpen bat.

### **9. Dirulaguntza ordaintzea eta aurrerakinak jasotzeko aukera**

AUKEA erakunde autonomoko Zuzendaritza Batzordeak onartutako diru laguntzaren %60a jarduera garatu aurretik jaso ahal izango da, hori eskatzen badu interesdunak, eta AUKEAk onartzen badu.

Gastuen konturako aurrerakinaren izaera izango du ordainketa horrek, kontuan izanik horrek guztiak gero erregularizatu beharra izango duela.

Baldin bukaerako likidaziotik kobratutako konturako aurrerakina behin betiko dirulaguntza baino handiagoa ateratzen bada, itzuli egin beharko da kobratutako dirulaguntzatik gorako kopurua, gehienez ere 60 eguneko epean, akordioa jakinarazten denetik kontatzen hasita.

### **10. Klausula gehigarria**

Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan oinarri orokorretan ezarritakoa izango da aplikagarria.

Halaber, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzan eta 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari atxikiko zaio.

Los datos alegados en la memoria y que no sean debidamente justificados no se tendrán en cuenta en la valoración de la solicitud.

En los supuestos de concesión de subvenciones cuya finalidad sea la recaudación de fondos no será necesaria la presentación de facturas o documentos originales, pudiendo sustituirse dicha documentación por la remisión, por parte de los beneficiarios de la subvención, de un resumen numérico del Balance de gastos e ingresos derivados de la celebración del acto.

### **9. Abono de la subvencion y posibilidad de anticipos.**

Se podrá realizar el abono del 60% de la subvención acordada por la Junta Rectora del organismo autónomo AUKEA antes de que se realice la actividad, si así lo solicita la parte interesada y AUKEA lo estima oportuno.

Dicho abono tendrá el carácter de adelanto a cuenta de los gastos, todo ello sin perjuicio de la necesaria regularización posterior.

En el supuesto de que de la liquidación final resultara que la entrega a cuenta cobrada es superior a la subvención definitiva, se deberá reintegrar el exceso de subvención cobrada en un plazo máximo de 60 días contado a partir de la notificación del acuerdo de concesión.

### **10. Clausula adicional**

En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en las bases generales de la convocatoria.

Asimismo, regirán la Ordenanza Municipal de Subvenciones y la Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes.